



Bergarako udalak deitutako proiektu / ideien lehiaketa 2013

Lehiatzailea: **MIZPIRUALDE 0002**

1	DATU OROKORRAK:	2
1.1	SUSTATZAILEA.	2
1.2	PROIEKTUA.	2
1.3	LEKUTZEA.	2
2	PROIEKTUAREN ZERGATIA, SARRERA	2
3	PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA	2
4	PROIEKTU TEKNIKOA	2
5	BALIABIDEAK	3
6	AURREKONTUA	3
7	LABURPENA GAZTELERAZ	6

AURREPROIEKTUA

1 DATU OROKORRAK:

1.1 SUSTATZAILEA.

BERGARAKO UDALA

1.2 PROIEKTUA.

IRISGARRITASUNA MIZPIRUALDE EGOITZA INGURUAN hirigintza proiektua.

1.3 LEKUTZEA.

Arizona plaza eta Juan Irazabal pasealekua lotzen dituen eskailerak, Bergara, Gipuzkoa.

Madalena plaza eta Zabalotegi kalea lotzen dituen eskailerak, Bergara, Gipuzkoa.

2 PROIEKTUAREN ZERGATIA, SARRERA

Mizpirualde Zaharren Egoitza, Bergarako alde zaharreko ekialdean kokatzen da, Mizpirualde kalean goi aldean, Madalena plazan.

Eraikinaren Kokalekua dela eta, bertako erabiltzaileek zailtasunak dituzte bertatik irtetzeko. Aukera erabilienean Mizpirualde Kalea da; orain dela gutxi konpondua gurpildun aulkiekin jeisteko, baina kalearen malda %10ekoa da luzeera guztian, irisgarritasun legea ez beteaz.

Proiektuaren zergaitia egoitzaren erabiltzaileei beste bi ibilbide egitean datza.

1- Hortik gertu Juan Irazabal pasealekua eta Ariznoa plaza batzen dituen eskaileretan ibilbide irisgarri bat egitea da. Eskailera hauetan ia lan dena eginda dago, batetik Juan Irazabaletik gaztetxera jeisteko ibilbide irisgarria eginda dago eta bestetik Epaitegiko sarrera ere bai. Beraz bi kota hauen arteko 7 eskailerak saihestea besterik ez da gelditzen; horrela San Pedro elizaren kontran malda irisgarri bat egiten da. Ibilbide hau Bolu auzoko bizilagunak ere erabili dezakete gaur egungo ibilbidea baino irisgarriagoa izango da eta.

2- Bestetik Egoitzaren arteetatik gertu Mirarien ermitaren atzean Zabalotegi kalea dago non aisialdirako gune apropos bat dauka. Bertara joateko, bi aukera daude, bata ermitaren ezkerrealdetik atzeko kaletik inguratuz, baina %24 malda dauka eta bestetik ermitaren eskuinaldetik, baina hemen eskilarak daude. Beraz gaur egun ez dago ibilbide irisgarririk. Horrela Mirarien ermita eskuinaldetik inguratuz ibilbide irisgarri bat egiten da, Zabalotegi kalera iristeko.

3 PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Mizpirualde egoitzako erabiltzaileak, Boluko eta Zabalotegiko bizilagunak eta Bergararrak orokorrean Alde zaharreko ekialdean erabiltzeko ibilbide irisgarri berri batzuk egiten dira.

Juan Irazabal pasealekua eta Ariznoa plaza batzen dituen eskaileretan San Pedro Elizaren kontra, %10 maldadun arrapala bat egiten da, horrela ibilbide guztia irisgarri eginaz.

Mizpirualde kalea eta Zabalotegi kalea batzen dituen eskaileretan la milagrosa ermitaren kontra, pasabide bat egiten da, ibilbide guztia irisgarri eginaz.

4 PROIEKTU TEKNIKOA

Teknika aldetik erraza den proiektu bat da, bai arrapalak eta bai pasabideak ez dauka zailtasunik.

Arrapala egiteko, gaur egungo eskilarak desmuntatu eta hormigoizko lauza bat egiten da. Lauza hau bukaera ez labankor batekin bukatu eta bi aldeetan irisgarritasun legedia betetzen duen barandak jarriko dira.

Pasabidea egiteko, hormigoizko horma bat egin eta atzealdea harriz beteko da. Ondoren gainean hormigoizko lauza bat egin eta bukaera ez labankor batekin bukatuko da. Hormaren gainean irisgarritasun legedia betetzen duen baranda bat jarriko da.